

Zer da jazarpena?

Ximun: Ez nuke nahi Anttonen lekuan izan: Antton ene gelako mutiko bat da; besteak beti hartaz trufatzen ari dira.

Kattin: A bai? Alta iduri du gisakoa dela...

Ximun: Bai, biziki gisakoa da; baina nola **ILE GORRIAK** dituen, ez da egun bat pasatzen **norbait hartaz trufatu gabe eta izen-goiti zozo bat erran gabe!**

Oskar: Larria da gertatzen zaiona! Hori **JAZARPENA** da!

Ines: Nola erran duzu, hori, Oskar?

Oskar: Jazarpena! Hori da **pertsona bat edo gehiago, norbaiti kalte egin nahiz, denbora guzian haren nardatzen aritzea**. Gehienetan, hori egiten dute haur hori besteengandik **DESBERDINA** delako!

Ines: **Ez da ile gorriak dituelako desberdina dela eta baztertu behar dela!**

Kattin: Egia! Ez da batere xuxen! Ez dira horrelako gauzak egitera utzi behar. Izugarri sufritzen duke!

Oskar: Nik, haren lekuan banintz, eta egunero norbaitek nardatzen banindu, **azkenean ez nuke eskolara joateko gogorik ere...**

Kattin: Arrazoi duzu, Oskar; nik ere ez! Zerbait egin behar dugul!

Ximun: Bai, baina zer?

Kattin: Ez dakit... Menturaz erraten ahal genioke, jadanik, gurekin jostatzera etortzeko... Kasik beti bakarrik egoten da! Eta hola, besteak haren nardatzera jiten badira, han izanen gara haren **DEFENDATZEKO!**

Ximun: Arras ideia ona, Kattin! Gurekin etortzea proposatuko diot.

Itzulpena: Maialen Bidegain



Les petits citoyens

150 rue des Poissonniers

75018 Paris

Tel. : 01 59 09 00 35

www.lespetitscitoyens.org

<http://www.nonauharcèlement>